GIZARTE-ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUKO BATZORDE IRAUNKOR DELEGATUAREN
BEHIN-BEHINEKO AKTA
(2004ko ekainaren 15eko bilera)

ACTA PROVISIONAL DE LA COMISION PERMANENTE DELEGADA DEL CONSEJO VASCO DE BIENESTAR SOCIAL
(Sesión de 15 de junio de 2004)

Dei-egilea:

Presidentea: Javier Madrazo Lavin jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

Bertaratutakoak:

Presidenteordea: Angel Elías Ortega jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordea.

Angel Bao Perez jauna- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Ongizateko zuzendaria.

Montserrat Urdiales Martínez andrea.- Idazkaria.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailekoa.

Juan Francisco Sandín Ramos jauna.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako zuzendari nagusia.

Maribi Roteta Mújika andrea.- EUDEL – Pasaiako Udalekoa.

Gualber Atxurra Pérez.- EUDEL – Muskizko Udalekoa.

Juan Carlos Sola Guzman jauna.-
Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailekoa.

Patxi Izulain Olaizola jauna
Gaixo Psikikoen eta euren senideen Euskadiko Federaziokoa (Fedeafes)

Blanca Estrella Ruiz Ungo andrea
Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroa Elkartekoa.

Convoca:

Presidente: D. Javier Madrazo Lavín.-Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

Asistentes:

Vicepresidente: D. Angel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

D. Angel Bao Pérez.- Director de Bienestar Social.- Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales

Dña. Montserrat Urdiales Martínez.- Secretaria. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

D. Juan Francisco Sandín Ramos.- Director General de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava.

Dña. Maribi Roteta Mújika.- EUDEL.- Ayuntamiento de Pasaia

D. Gualber Atxurra Pérez.- EUDEL – Ayuntamiento de Muskiz

D. Juan Carlos Sola Guzman
Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

D. Patxi Izulain Olaizola
Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos (Fedeafes).

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo
Asociación Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña.

| | |
|---|---|
| Pedro Fernández García jauna<br>Urritasun psikikoa duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federaziokoa (Fevas) | D. Pedro Fernández García.- Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con minusvalía psíquica (Fevas). |
| Juan Luis Fuentes jauna.- Irse Bizkaia elkartekoa. | D. Juan Luis Fuentes.- Irse Bizkaia. |
| Iker Larreina Vidán jauna.<br>Euskadiko Gazteriaren Kontseilukoa. | D. Iker Larreina Vidán<br>Consejo de la Juventud de Euskadi. |
| Beste batzuk | Otros: |
| Iratxe Mier andrea.- Kontseiluaren Aholkularitza Teknikokoa. | Dña. Iratxe Mier.- Asesoría Técnica del Consejo |
| Carlos E. García Martín jauna.- Arabako Foru Aldundia. | D. Carlos E. García Martín.- Diputación Foral de Alava. |
| Honako hauek etorri ezina azaldu dute: | Excusan su asistencia: |
| Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze zuzendaria. | D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano.- Director de Inserción Social de la Diputación Foral de Bizkaia. |
| José Luis Madrazo Juanes jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ezinduen eta Babesgabeen Laguntzako zuzendari nagusia. | D. José Luis Madrazo Juanes.- Director General de Atención a la Dependencia y Desprotección de la Diputación Foral de Gipuzkoa |
| Begoña Gil Llanos andrea.- EUDEL – Bilboko Udalekoa. | Dña. Begoña Gil Llanos.- EUDEL Ayuntamiento de Bilbao |
| María Luisa Mendizabal andrea<br>Euskadiko Kooperatiben Konfederaziokoa. | Dña. María Luisa Mendizabal<br>Confederación de Cooperativas de Euskadi |
| Etorri ez direnak: | Ausentes: |
| Javier Alday Careaga jauna<br>Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen eta Erretirodunen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federaziokoa. | D. Javier Alday Careaga<br>Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco. |
| Belén Bilbao Borde andrea.- Droga Gaietako zuzendaria. | Dña.- Belén Bilbao Borde.- Directora de Drogodependencias. |
| Julene Gabiola Amallobieta andrea<br>ELA sindikatukoa. | Dña. Julene Gabiola Amallobieta.- Sindicato ELA. |
| Miren Amilibia Urzelai andrea<br>Gipuzkoako Gizarte Laneko Diplomatuen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialekoa. | Dña. Miren Amilibia Urzelai<br>Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Gipuzkoa. |

Bilera goizeko 10:15ean hasi da, 2004ko ekainaren 15ean. Hona hemen gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
2. Argibideak ematea Zuzendaritzaren ekimenei eta lanari buruz.
3. Argibideak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostena dela-eta Azterketa eta Proposamen Batzordeak egindako lanen gainean.
4. Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ereduari buruz gogoeta egiten jarraitzea
5. Galderak eta eskaerak.

La sesión dio comienzo a las 10´15 de la mañana del 15 de junio de 2004, con el siguiente orden del día:

1. Aprobación del acta de la sesión anterior.
2. Información sobre iniciativas y trabajo de la Dirección.
3. Información sobre los trabajos de la Comisión de Estudios y Propuestas, referidos al informe sobre la situación de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
4. Continuación de la reflexión sobre el modelo de Consejo Vasco de Bienestar Social.
5. Ruegos y preguntas.

*1. puntua.- Aurreko bilkuraren akta onartzea*

Gizarte Gaietako Sailburuorde Ángel Elías da bilkuraren buru, eta ongietorria egin die bertaratutako guztiei.

Aurreko bilkuraren akta aho batez onartu da.

*Punto 1.- Aprobación del acta de la sesión anterior*

Ángel Elías, Viceconsejero de Asuntos Sociales, preside la sesión y da la bienvenida a todos los asistentes.

Se aprueba por unanimidad el acta correspondiente a la sesión anterior.

*2. puntua.- Argibideak ematea Zuzendaritzaren ekimenei eta lanari buruz*

Gizarte Ongizateko Zuzendari Ángel Baok Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntza-lerroetan jasotako eskaerei buruzko aurkezpen laburra egin du, eta hurrengo hilabetetik aurrera ordaindu ahal izango direla espero duela gaineratu du.

Arabako Foru Aldundiko Patxi Sandinek ikastaro, jardunaldi eta esperimentalen laguntza eskatzen duten erakundeek zein profil duten galdetu du, hau da, lurraldez gaindiko eremukoak ote diren.

Gizarte Ongizateko Zuzendari Ángel Baok azaldu du ofizialki lurraldez gaindiko eremukoak izan beharko luketela, baina egiaz ez da horrelakorik eskatzen, "Lurraldez gaindiko eremuko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen funtzionamendurako laguntzak" lerroan izan ezik. Edozein kasutan ere, laguntza-lerro bakoitzaren balorazio-itemetan puntuatuko da.

*Punto 2.- Información sobre iniciativas y trabajo de la Dirección*

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, hace una breve presentación sobre las solicitudes recibidas en las diferentes líneas de ayudas que gestiona la Dirección y añade que espera que se puedan abonar a partir del mes que viene.

Patxi Sandín, de la Diputación Foral de Alava, pregunta qué perfil tienen las entidades que solicitan ayudas de cursos, jornadas y experimentales, es decir, si son de ámbito supraterritorial.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, explica que oficialmente debieran de ser de ámbito supraterritorial, pero en realidad no se exige, excepto en la línea “Ayudas para el funcionamiento de las entidades privadas sin ánimo de lucro que desarrollen actividades de ámbito supraterritorial”. En cualquier caso, sí que se puntúa en los Ítems de valoración de cada línea de ayudas.

*3. puntua.- Argibideak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostena dela-eta Azterketa eta Proposamen Batzordeak egindako lanen gainean*

*Punto 3.- Información sobre los trabajos de la Comisión de Estudios y Propuestas, referidos al informe sobre la situación de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

Gizarte Ongizateko Zuzendari Ángel Baok baikor baloratu ditu Azterketa eta Proposamen Batzordeak egin dituen hiru bilkurak. Bilkura horietan hainbat gomendio landu ziren, adostasunez onarturikoak, EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruz SIISek eginiko txostena abiapuntutzat hartuta.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, valora positivamente las tres reuniones que ha celebrado la Comisión de Estudios y Propuestas. En dichas reuniones se elaboraron una serie de recomendaciones, aprobadas por consenso, a partir del informe que realizó el SIIS sobre la situación de los servicios sociales en la CAV.

Erakunde arteko hurrengo bilkuran aurkeztuko dira gomendio horiek, ondoren Osoko Bilkurara eramango dira onar ditzaten eta SIISen txostenera gainera ditzaten, eta, azkenik, Legebiltzarrera igorriko dute txostena.

Estas recomendaciones se presentarán en la próxima reunión interistitucional, posteriormente se llevarán al Pleno para su aprobación y se incorporará al informe del SIIS para, finalmente, remitirlo al Parlamento.

Kontseiluaren Aholkulari Tekniko Iratxe Mierrek adierazi du Hirugarren Sektoreak ere Azterketa Batzordeak landuriko dokumentua kontrastatu ahal izango duela.

Iratxe Mier, Asesora Técnica del Consejo, expone que el Tercer Sector también podrá contrastar el documento elaborado por la Comisión de Estudios.

*4. puntua.- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ereduari buruz gogoeta egiten jarraitzea.*

*Punto 4.- Continuación de la reflexión sobre el modelo de Consejo Vasco de Bienestar Social.*

Kontseiluaren Aholkulari Tekniko Iratxe Mierrek Batzorde Iraunkorraren aurreko bilkuran bilduriko puntu nagusiak aurkeztu ditu, GOEKaren ereduari buruzko xede eta edukiei dagokienez.

Iratxe Mier, Asesora Técnica del Consejo, presenta los puntos principales recogidos en la reunión anterior de la Comisión Permanente en cuanto a la finalidad y contenidos sobre el modelo de CVBS.

Haren premia eta gabeziei dagokienez, honako hauek azpimarratu behar dira:

- ✓ Kontseiluaren funtzionamendua eraentzen duen egungo Dekretua berritzea.
- ✓ Hitz propiorik ez izatea.
- ✓ Gizarte-errealitatea ez dago kontseiluan ordezkatua.
- ✓ Baliabide propioak edukitzea.
- ✓ Erakunde arteko espazioa.

Entre las necesidades e insuficiencias del mismo cabe destacar:

- ✓ Renovación del actual Decreto que rige el funcionamiento del Consejo.
- ✓ La falta de voz propia
- ✓ La realidad social no está representada en el Consejo.
- ✓ Contar con recursos propios
- ✓ Espacio interistitucional

*- KONTSEILUAREN AUTONOMIARI ETA MENDEKOTASUNARI DAGOKIENEZ, honako hau adierazi zen:*

*- RESPECTO DE LA AUTONOMÍA Y DEPENDENCIA DEL CONSEJO, se comentó lo siguiente:*

EUDELeko Gualber Atxurrak adierazi du berak ez duela argi ikusten nola dinamiza daitekeen Kontseilua arinagoa izan dadin. Langile tekniko propioak edo kanpoko laguntza baliatuta lortzea proposatu du.

Gualber Atxurra, de EUDEL, expone que no alcanza a ver cómo se puede dinamizar el Consejo para que sea más ágil. Propone que sea a través de personal técnico propio o bien recurriendo a ayuda externa.

Arabako Foru Aldundiko Patxi Sandinek adierazi du funtzionatzeko erabateko autonomia beharko lukeela eduki Kontseiluak, sailarekiko mendekotasunik gabe agian.

Patxi Sandín, de la Diputación Foral de Álava, afirma que el Consejo debiera tener autonomía plena de funcionamiento, tal vez sin dependiencia departamental.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruizen ustez Kontseilu hau independentea izatea litzateke egoki-egokiena, nahiz

Blanca Estrella Ruiz, del Centro de Información de la Mujer y del Niño y la Niña, considera que lo ideal sería que este Consejo fuera independiente, aunque para

eta horretarako Gizarte Zerbitzuen Legea aldatu beharko litzatekeen. Edozein kasutan ere, Kontseiluak nahiko autonomia baduela uste du.

ello habría que cambiar la Ley de Servicios Social. En cualquier caso, opina que el Consejo tiene autonomía suficiente.

Gizarte Ongizateko Zuzendari Ángel Baoren esanetan egokia litzateke Kontseilua organo independentea izatea, ezein saili adskribatu gabea. Izan ere, aukera hori aztertuko zuen txostena agindu zen; kontsultaturiko eragileek eskaera horren premia ez zutela argi ikusten izan zen txostenaren emaitza, gizarte-erakundeek Kontseiluak hobeto funtzionatzea eskatzen bazuten ere.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, afirma que es un objetivo deseable el hecho de que el Consejo fuera un órgano independiente, no adscrito a ningún departamento. De hecho, se encargó un informe que estudiara esta posibilidad, el resultado fue que los agentes consultados no se veían la necesidad clara de esa petición, aunque las entidades sociales sí que reclamaban un mejor funcionamiento del Consejo.

- *KONTSEILUAREN OSAERARI DAGOKIONEZ, honako zehaztasun hauek eman ziren:*

- *RESPECTO A LA COMPOSICIÓN DEL CONSEJO, se hicieron las siguientes matizaciones:*

Kontseiluaren Aholkulari Tekniko Iratxe Mierrek proposatu du Kontseiluak elkarte gehiago barne hartzea, Gizarte Hezitzaileen Elkargoa, besteak beste.

Iratxe Mier, Asesora Técnica del Consejo, propone que en el nuevo modelo de Consejo se incluyan más asociaciones, entre ellas al Colegio de Educadores Sociales.

Arabako Foru Aldundiko Patxi Sandín talde hori barne hartzeko aukeraren alde dago.

Patxi Sandín, de la Diputación Foral de Álava, es favorable a la inclusión de ese colectivo.

Gizarte Ongizateko Zuzendari Angel Baok hartu du hitza, eta gor-itsuen taldea ere kontuan hartu beharko litzatekeela gaineratu du. Unibertsitateak bestelako Kontseiluetan ordezkaritza baduela adierazi du, eta Kontseilu honetan parte hartzeko aukera ere azter daitekeela.

Toma la palabra Angel Bao, Director de Bienestar Social, para añadir que también se debiera de tener en cuenta el colectivo de sordo-ciegos. Así mismo, indica que la Universidad también está representada en otros Consejos y se puede estudiar la posibilidad de que forme parte de este.

Beste Sektore Kontseiluetako ordezkariak gonbida daitezkeela gaineratu du (hitza soilik dutela bada ere), hala nola boluntarioen sektorekoak, immigrazio-sektorekoak, sektore sozio-sanitariokoak, irisgarritasun-sektorekoak, eta abar.

Añade que se pueden invitar a representantes de otros Consejos Sectoriales aunque solo fuera con voz, como por ejemplo los de voluntariado, inmigración, socio-sanitario, accesibilidad…

FEVASeko Pedro Mª Fernández Garciak Gizardatz barne hartzea proposatu du, hirugarren sektoreko patronala balitz bezala lan egiten baitu. Hirugarren Adinak ordezkaritza eskasegia duela ere adierazi du.

Pedro Mª Fernández García, de FEVAS, propone que se incluya a Gizardatz, que trabaja como si fuera una patronal del tercer sector. Así mismo, expresa su opinión de que la tercera edad está infrarepresentada.

FEDEAFESeko Patxi Izulainen ustez Haurtzaroaren eremuak ere Kontseiluan parte hartu behar du.

Patxi Izulain, de FEDEAFES, considera que el ámbito de la Infancia debiera estar presente en este Consejo.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruizek eskatu du Kontseiluko kideak berritzen diren hurrengo aldian deialdia lurraldez gaindiko Euskadiko erakundeei egitea, edo behintzat bi lurraldetan lanean ari diren erakundeei.

Blanca Estrella Ruiz, del Centro de Información de la Mujer y del Niño y la Niña, solicita que en la próxima renovación de los vocales del Consejo se convoquen a entidades de Euskadi que tengan un carácter supraterritorial, o al menos que estén trabajando en dos territorios.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko Juan Carlos Solaren iritziz, Kontseilu berriak

Juan Carlos Sola, de la Confederación Coordinadora de Disminuidos físicos de la CAPV, opina que para

ordezkaritza handiagoa izan dezan, lurraldez gaindiko eta Herri Onurakotzat aitortutako erakundeak izatea baloratu beharko litzateke lehenik, eta ondoren eskakizun-maila jaitsi.

lograr una mayor representatividad en el nuevo Consejo se debiera valorar, en primer lugar, que fueran entidades supraterritoriales y declaradas de Utilidad Pública para, posteriormente, ir rebajando las exigencias.

Kontseiluaren Aholkulari Tekniko Iratxe Mierrek Aurrezki Kutxak, gizarte-ekintzari dagokionez, Kontseiluan barne hartzeko aukerari buruz galdetu du.

Iratxe Mier, Asesora Técnica del Consejo, pregunta por la posible inclusión en el Consejo de las Cajas de Ahorro, en su parte de obra social.

IRSEko Juan Luis Fuentesek zein FEDEAFESeko Patxi Izulainek ez dute uste Aurrezki Kutxen presentzia beharrezkoa denik.

Tanto Juan Luis Fuentes, de IRSE, como Patxi Izulain, de FEDEAFES, no consideran necesaria su presencia.

Unibertsitateak Kontseiluan parte hartzeko aukeraren alde dagoela adierazi du Arabako Foru Aldundiko Carlos Garciak. Aurrezki Kutxei dagokienez, egokia iruditzen zaio lurralde-eremuaren kasuan, baina ez hemen. Edozein kasutan ere, beharrezkoa iruditzen zaio hemen jorratzen denaren berri haiei ematea.

Carlos García, de la Diputación Foral de Álava, expresa su opinión favorable a la participación de la Universidad en el Consejo. En cuanto a las Cajas de Ahorros, opina que sí lo considera oportuno en un ámbito territorial, pero no aquí. En cualquier caso, sí ve la necesidad de hacerles partícipes de lo que aquí se trate.

Gizarte Ongizateko Zuzendari Ángel Baok dauden aukeren laburpena egin du:

- ✓ Aholkularitza teknikoa, Boluntarioen eta Ijitoen Kontseiluetan bezala.
- ✓ Presidente profesional bat, Eskola Kontseiluan bezala.
- ✓ Koordinatzaile bat (kontrataturikoa), Kontseilu Sozio-Sanitarioan bezala.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, hace un resumen de las posibilidades que se barajan:

- ✓ Asesoría técnica, como en los Consejos de Voluntariado y de Gitanos.
- ✓ Un presidente profesional, como en el Consejo Escolar
- ✓ Un coordinador (persona contratada), como en el Consejo Socio-Sanitario.

Haren ikuspuntutik, koordinatzailea litzateke irudirik egokiena.

Desde su punto de vista, un coordinador sería la figura que más adecuada.

FEDEAFESeko Patxi Izulainen ustez kanpo-aholkularitza litzateke bideragarriena. Kontseiluaren bozeramaile bat izendatzeko premia ere azpimarratu du, eta ez luke zertan liberatua izan. Kontseiluak bi lagun izendatzea proposatu du; batek dinamizatu egingo du, eta besteak bozeramaile-lanak beteko ditu.

Patxi Izulain, de FEDEAFES, observa que la consultoría externa es lo más viable. Así mismo, incide en la necesidad de nombrar un portavoz del Consejo, que no necesariamente tiene que estar liberado. Propone que el Consejo nombre a dos personas, uno que dinamice y el otro que ejerza la función de portavoz.

Gizarte Ongizateko Zuzendari Angel Baok Presidenteorde bat izendatzeko aukera azpimarratu du.

Angel Bao, Director de Bienestar Social, repara en la posibilidad de nombrar un Vicepresidente.

Kontseiluaren Aholkulari Tekniko Iratxe Mierren ustez Presidenteorde-lanak beteko lituzkeen bozeramaile bat aukera daiteke eta, aparte, kanpoko Aholkularitza Tekniko bat bilatu; ez litzateke sail jakin bati lotuta egongo eta, aldi berean, koordinatzaile-lanak beteko lituzke Osoko Bilkurarako.

Iratxe Mier, Asesora Técnica del Consejo, opina que se puede elegir un portavoz que ejerciera de Vicepresidente y a parte buscar una Asesoría Técnica externa, que no estuviera ligado a un departamento determinado y a su vez sirva de coordinador para el Pleno.

IRSEko Juan Luis Fuentesen ustez demokratikoena Batzorde horietan lan egiten duen norbait izendatzea litzateke, kanpoko inor zertan kontratatu gabe.

Juan Luis Fuentes, de IRSE, considera que lo más democrático es nombrar a alguien del Consejo que trabaje en esas Comisiones, sin necesidad de

Idazkaritza teknikoak dinamizatzaile-lanak betetzearen aldekoa da, baina ez Kontseiluaren dinamizatzaile izatekoaren aldekoa.

FEDEAFESeko Patxi Izulain ere bat dator bozeramailea Kontseiluko kide izateko iritziarekin. Aurrekontu propioa izanez gero, horrek independentzia handiagoa emango lukeela ere gaineratu du, Kontseilua ez baitzen ezein sailen menpe egongo.

Gizarte Ongizateko Zuzendari Ángel Baok Batzorde Iraunkorra txikiagoa izateko aukera aipatu du azkenik, arinagoa izango baitzen.

Sektore Batzordeak gehiago dinamizatzea eta Batzorde Iraunkorra Sektore Batzordeak edo Batzorde Tematikoak koordinatzen dituztenek osatzea proposatu du FEVASeko Pedro Mª Fernández Garciak.

2004ko ekainaren 15eko 13:15ean amaitu da Batzorde Iraunkor Delegatuaren Bilkura.

contratar a alguien externo. Es partidario de la secretaría técnica como dinamizador, pero no para que sea el portavoz del Consejo.

Patxi Izulain, de FEDEAFES, se suma a la opinión de que el portavoz sea un miembro del Consejo. Así mismo, añade que si se contase con un presupuesto propio esto le daría una mayor independencia al no estar sujetos a un departamento.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, concluye que la Comisión Permanente fuera más reducida para hacerla más ágil.

Pedro Mª Fernández García, de FEVAS, propone que habría que dinamizar más las Comisiones Sectoriales y que la Permanente estuviera formada por los que coordinan las Sectoriales o Temáticas.

La Sesión correspondiente a la Comisión Permanente Delegada finalizó a las 13'15 h del día 15 de junio de 2004.

SECRETARIA
IDAZKARIA

VBº EL PRESIDENTE
PRESIDENTEAREN ONIRITZIA